

ADMINISTRAZIOA ETA EUSKARA (2)

SARRERA

Karmel aldizkari honetako ihazko 3.alean eman nion hasiera, une honetan aldasgora gertatzen ari zaidan alor honi. Orduan, sarrera luze baten ondoren Gasteizen izandako jardunaldietako zenbait txostenen laburpena eskaini nizuen, «aurkeztutako arazoei irtenbide konkrituak ematera zuzendurik egin ziren gainerrako txostenetako proposamenak» eskaintzea hurrengorako utziz.

Esku artean duzun idazlan honetan, bada, orduan erdizka burututa geratu zen alorra jorratzeari jarraitu nahi diot. Oraingo honetan ere, erizpide nagusienak jasoko ditut, berri sakonago eta zehatzagoak nahi izanez gero, argitaratua izan den liburura joteko aukera emanez. Lan honetan agertuko diren zenbakizko aipamenak HAEF/IVAPEk *Administrazioko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak* izenburua duela (Oñati, 1989) argitaratutako liburuko orrialdeei dagozkie.

Aurreko txosteneko sarreran esan nuen bezala, bestalde, gure aztergaia ez da nola euskaldundu administrazioa aztertzea, zer nolako euskara mota erabili behar den administrazioko beharriaznei erantzutean eztabaidatu, aztertu eta taiutzea baino. Edo eta, gutxienez, norantz jo beharko genukeen administrazioko hizkera egiterakoan seinalatzea.

Oraingo honetan, bada, administrazioko hizkera ahalbideratzeko erabili ohi diren termino euskaldunen eta horretarako erabili beharko ditugun baliabideen aurkezpena eta azterketa egiten saiatuko naiz, bidenabar aurreko leneko ideiarik agertzen bada ere. Errepikapenek, bestalde, sarritan mesedea ekarri ohi dute helburuak azpimarratzen dituzte eta. Testu literalei (•) jarriko diet aurrekaldean.

Esan bezala, beste zeharkako aipamenik egiten bada ere, oinarritzat Gasteizeko txostenak jasoten dituen liburua hartu dut. Liburu hori izango dut itsumutil nire ibilbide luze honetan.

Gaiaren aurkezpena eta azterketa

Idazlan honetako azterbide dugun gaiari hasiera emanez, oraingo azterketa hiru txosten nagusiren inguruan egingo dela aitortu behar. Lehendabizi, aurrekoan egin nuen bezala, txostenegilearen ikuspuntu nagusien laburpena bilduko dut eta jarraian erantzuleen txostenetako erizpideak. Ahalik eta laburren aditzera ematen saiatuko naiz.

I. Administrazio Terminologiaren sorkuntzarako bideak (81-116 or.)

A) Andoni Sagarna (Txostenegilea: UZEI-ko teknikaria)

Txostena hiru atal nagusitan banaturik eskaintzen digu. Nik ere ordena errespetatu nahi izan dut:

1) Zer da administrazioko terminologia? (81)

• Terminologia terminoa bi konzepturi dagokie:

1.1. Giza esperientziaren alor berezituetaoak diren kontzeptuei dagozkien izendapenen azterketa sistematikoa, bereziki gizarte-funtzionamenduan kontsideraturik.

1.2. Eremu baten, giza talde baten edo gizabanako baten termino propioen multzoa.

• Azterkizun dugun gaiak den bezain batean interesgarri deritza erabilera-eremu espezifikoa eta erabilera-eremu atekia bereiztea. Terminoa bat eremu batean sortua izan arren (pagadi termi-

noak, adibidez, botanika du erabilera-eremu espezifikoa) beste eremu batzuetan ere (Nekazaritza Saileko agiri batetan) erabiltzen diren, lehenengo terminoaren erabilera-eremu espezifikoa dela eta besteak erabilera-eremu atxekiak direla esango dugu. (81).

- Administrazioak argitaratzen duen dokumentuen multzoa corpus-tzat hartzen badugu, beste hainbat eremutako terminoak aurkituko ditugu bertan eta baita administrazioa bera eremu espezifikotzat duen beste hainbat termino ere, hala nola: Saila, Sailordea, etab. (82).

2) Administrazioaren terminologiaren sorkuntzarako bideak eta baliabideak (82-83 or.)

a) *Bideak hizkuntza egoera normaletan*: jarraiko partehartzaileok izaten dirala dinosku:

Sortzaileak: jakingai ezberdinetako espezialistak: «Nork bere gaia oso ongi ezagutzen du, baina ez du berarizko prestakuntzarik ez astirik izaten erabiltzen duen terminologia sistematikoki bildu, aztertu, egituratu, arautu eta ezagutzera emateko» (83).

- *Terminologoak*: «metodologia propioa erabiliz espezialisten lanetan agertzen diren jatorrizko terminologiak lantzen dituzte araugintza xedetzat harturik». (83).

- *Erabiltzaileak*: «komunikazio zientifiko-teknikoko hartzaileak dira. Hauek komunikazio-mota horretako berbaldi eta testuetan txertaturik jasotzen dute terminologia. Komunikazioan bitartekari-eginkizuna betetzen duten itzultzaile, interpretetzaile, idazle eta xede berezietako hizkuntzen irakasleak, berbaldi eta testuez gain, lexikografia terminologiko edo terminografiaren emaitzak ere eskuratzen dituzte, beren lanerako tresna lagungarri gisa» (83). «Gure egoeran, orain arte aurreko alorrok nahasmendu handiz burutu izan dira. Alde batetik ez dugulako behar hainbat sortzaile izan (...) eta bestetik, hiztegiak eta itzultzaileak (bitartekariak) terminologoen lana ere burutu izan dutelako. Askotan, gainera, prisaka eta nahiko ikerketa egiteko astirik gabe» (84).

b) *Une honetan eginbidean diren egintzak*: Euskaldunon artean, gaur egun hainbat lan sakon ari direla burutzen, besterik beste honakook -dio: (94-95 or.)

-*Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)*: «Garai eta euskalki guztietako euskal lexikoa biltzeko inoiz egin den lanik handiena dugu hau».

-*Eguno Euskararen Bilketa-lan Sistemakoa (EEBS)*: «XX. mendeko euskara idatzian erabili den lexikoaren nondik norakoak azaltzea da».

-*Lexikologia Erizpideen Finkapena (LEF)*: «Euskarak dituen hitz-eraketa prozeduren (hitz arrotzak mailegatzeta, hitz elkarketa eta eratorpena) ikerketa».

-*UZEL-ren hiztegien azterketa eta berriztaketa*. Azken hamar kadan kaleratu ditugun hiztegiak sistematikoki berrikusi, txukundu (...) eta kontsulta ahal ditzaten eran jartzen ari gara».

3) *Terminologia sorkuntzarako bideak (86-87)*

Euskaldunok, alor honetan, dugun arazorik garrantzitsuena, terminologiaren prozesuan parte hartzen dutenen arteko harremanak bideratzea litzateke. Horretarako honako faktoreok hartu beharko lirateke kontutan:

a) Alde batetik *sortzaileak* leudeke, Unibertsitatean zein Elkargo Profesionaletan terminoak sortzen: «espezialisten eritziei ezin- go zaie entzungor egin».

b) Bestetik, *hartzzaileak*, administrazioa bera ez dugula eremu bakarra. Hori Lurraldean arteko banaketa (Nafarroako Administrazioa, Euskal Autonomi Elkartekoa, Ipar Euskal Herrikoa) erantsen zaio.

c) Azkenik, *terminologoen* lana, hots gorago aipaturiko ikerketan ari diren teknikariena.

Hori dela eta eskatzen du nahaste-borraste guzti hori bideratuko eta koordinatuko duen terminologi sare osoa Euskal Herrian sortzea, jarraiko proposamen hau eginez:

• *Izena: Terminologia Teknikoaren Kontseilua*

Partaideak: Hamairu partaide izango litzuzke guztira: 3 Administrazioetakoak; 3 Unibertsitateetakoak; 3 Elkargo Profesionaleetakoak; 3 Hizkuntza teknikoaz arduratzen diren elkarteetakoak (UZEI, Elhuyar, UEU, Aranzadi, Etniker,... Euskaltzaindikoa, honi legokiokelarik Kontseiluaren lehendakari izatea.

Eginkizunak: Euskal terminologia teknikoaren sorkuntzan parte hartzen dutenen lanak koordinatzea, lehenetasuna definitzea, bere itzala onartzen dutenei terminologia konkretuen erabilera proposatzea, agintariei terminologi arloko beharrak agertzea.

Jardunbidea: «Kontseilu hau hiru hilean behin bilduko litzateke. Urtean behin, jardunaren berri emango lukeen txostena eta hurrengo urterako egitasmoa prestatu eta aurkeztuko lieke agintariei». (87).

B) Endika Garai (Erantzulea: Bizkaiko Abokatu Elkargokoa) (89-97 or.)

Jarraiko lerroetako erizpideotan laburbil daiteke bere txosten luzea. Batik bat maila juridikoan sor daitezkeen arazoei buruz eginiko hausnarketa sakona da:

-Zuzenbide mundua euskaldundu beharra dago (irakaskuntza eta abar bezala) baina ezin da bakanki lan egin; egitekoa euskalduntze prozesu orokorrean kokatu beharra dago.

-Lehendabiziko zeregina: euskara tekniko-juridikoa gertatzeko egiten diren iniziatibak bateratzea.

Bi bide proposatu zituen horretarako:

a) «Bata, Estatuko sistema juridikoaren kontzeptu, esaldi juridiko eta hitzei ordainik egoki eta estuena bilatu eta edozein hizkuntzatan emanda esanahi juridiko bera izatea» (94).

b) «Bestea, berriz, litzateke errealitate juridikoak sakontzea eta areagotzea euskal inguru batetan eta, legeak edo arauak egiten diren momentutik hasita» (94).

•Euskal itzultzaileak edo esparruko espezialistak ematen duen terminologiak erderazko kontzeptuen espiritua ez badu errespetatzen eta euskal terminologia horrek zentzu zabalagoa edo murrituagoa ematen badio lege edo kontzeptu bati, euskal hiritarrak ez du izango berarentzat euskal hitzak suposatzen duena esijitzetik» (94).

B) *Antton Ibarguen*: (Erantzulea: Gipuzkoako Abokatuen Elkargokoa) (99-102 or.)

Bere txosteneko lehen aldean, Elkargo barruan izandako go-goetak eta hartutako erabakien laburpena bildu zuen (99-101), bigarrenean, *Andoniren Txostenaz eta bestez* eritzia ematera jo zuelarik (101-102). Besterik beste, txosten guztien eritziak labur bilduz honako puntuok eskaini zizkigun:

- 1. Euskararen kinka larria.
2. Plangintza orokor baten premia.
3. Administrazio Terminologia eta horren barnean sail bat berezia bezala, Zuzenbide Hizkuntza eta terminologiaren sortze eta lantze premia.
4. Horretarako, terminologi horren erabiltzaile guztion arteko ezinbesteko koordinaketa beharra.
5. Fenomeno marginal, bitxi eta garrantzi gabeko testimonial erabilera gaindituz, normalkuntza bateratuz, gure ahalegina luza-tzea, sozial arlo guztietan txertatu dadin.
6. Erabilgarritasuna eta ulergarritasuna izan dadila beti gure izar gidaria.
7. Gaztelaniaren edota hitzaren morroi ez-ezik, esanahiaren ildotik jotzea izanik gure urrezko eredua.
8. Hizkuntzalari eta espezialisten arteko elkar lanez osatutako prozedura inoiz ahaztu gabe.
9. Teknikoei gomendatuz lanik nagusia, bestean gainbegirada eta kolaborazioarekin. Guk UZEI-ren zeregina goraiatu eta indartu beharra, baliabidez dotatuaz, azpimarratuko genuke.

10. Sortzaile eta erabiltzaileen arteko sarea estutu beharko litzateke, zabalkunde, irakasmolde eta bitarteko guziak erabiliaz. Sortutako terminologia hori guziera ezagutzera emateko.

Hitz biran esateko eta amaitzeko: guztiok ados gatozen premia larri honi erantzuna emateko, Andres Urrutiak dioen Hitzarmen horretara iritxi beharko dugu, adostasunezko mekanismo koordinatuen bidez, denon parte hartzea bideratuz» (102).

D) J. M. Zabaleta (Erantzulea: Euskal Itzultzaileen Elkartekoa) (103-107 or.).

Honek egin zuen aportaziorik nagusiena «diskurtsoa» deritzanari emandako garrantzia izan zen. Besterik beste honakook gogora ditzakegu:

- Kodeak, derrigor, hizkuntzaren araua behintzat ezin hautsiko du. Areago agintzen dit niri zuhurtziak, hizkuntz ohiturak ere behartu eta bortxatu gabe zaindu beharko liratekeela. Hizkuntzaren beraren oinarriko estiloa ez litzatekeela galdu behar. (104).

- Teknolekto baten antz handia duen hizkera bat, idazkera bat, eratu behar da. Hemen bildurik bagaude halakorik ez dagoelako da, hain zuzen. Teknolektoak hizkuntza mintzatua ez bezalakoak izaten dira. (104).

- Hizkuntza baten erabilera alor berrietara, gurean zabaltzen ari den bezain bestetara gainera, zabaltzen denean, gurea bezain oinarri sozial laburra duelarik (%25 euskara ulertzaile) kontu handiz neurtu beharko litzateke zenbateraino izan behar duten teknolekto horiek standardaren eta elkarren desberdinak, zenbateraino urundu beharko liratekeen standardetik eta elkarrengandik. (105)

- Terminologia sorkuntzak puntuok guztiak kontutan hartu behar ditu. Signifikatuaren baitan jakintza maila batean zilegi eta beharrezko diren bereizkuntzak egiteko irizpidez gainera, diskurtsoan era egokian txertatu ahal izateko egokia beharko du izan termino bakoitzak. (107).

• Diskurtsoaren gramatikak argitu litzake diskurtsoaren koesioa (batasuna, distortsiorik eza, arintasuna, *dis-currítzea*) eragiten duten mekanismuak zeintzuk diren. (107).

2. *Administrazioko terminologia eta inguruko arloekiko barremanak* (153-181 orr.)

A) *Araceli Diaz de Lezana* (Txostenegilea: Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundekoa) (153-164 or.)

Araceli-k bere txostenaren lehen aldean terminologiari buruzko aurkezpen teoriko bikaina eskaintzen digu. Benetan interesgarria! Hala ere, guri, batez ere konponbiderako egiten dituen proposamenak interesatzen zaizkigu. Besteak beste, honakook azpimarratuko nituzke:

• Gaur egun, Euskal Administrazioak sortzen duenaren zati handi bat elebiduna izan behar da. Hau ahalbideratzeko, itzultzaile-taldeak daude erakunde ofizial guztietan. (159).

• Itzultzaile hauek funtzio bikoitza bete behar dute: batetik, dokumentuak euskaraz ematea eta, bestetik, hau egiteko azaltzen zaizkien terminologia-zalantzak ikertzea. Bi lan ezberdin egin behar dituzte, itzultzailearena eta terminologoa (159).

• Gure kasuan, lan hauek egitea, itzultzea eta ikerketa terminologikoa alegia, latzak dira, oztopo handiak baitaude. Beste zenbaiten artean honako oztopo hauek aipatuko nituzke: (160)

1) Ez dago teknika-literaturarik euskaraz eta ondorioz ez dago zertan oinarriturik.

2) Dokumentazioaren barruan, dauden hiztegiek ez dituzte betetzen itzultzaileei azaltzen zaizkien arazoak (...). Termino asko eta asko ez dira aurkitzen hiztegi hauetan... ez daude eguneratuta...

3) Termino berriak agertzen ari dira etengabe. Itzultzaileek, hauek itzultzeko ez dakite nora jo.

4) Azkenik, ahalegin handiak egin ondoren, zenbait kasutan itzultzaileak hurrengo baterako eta badaezpada, bere ikerketa eta

emaitzak fitxategi pertsonalean gordeko ditu. Baina gehienetan, denborarik eza dela eta, itzultzaileak ez du jasoko fitxa batean, termino bat ikertzeko jarraitu dituen pausua, zer nolako dokumentazioa erabili duen eta zer nolako erabakia hartu duen eta zergatik.

Hona hemen alferrik egindako lanaren adibidea. Handik denboraldi batera ikertutako terminoa berriz agertuko zaio itzultzaileari eta egoera errepikatu egingo da. (160)

- Terminologia-ikerketak ez da itzultzailearen lana, edo ez da izan behar. (...) Baina okerrera hau da: itzultzaile baten lana ezin dute besteek aprobetxatu.

- Esan behar da ezinezkoa dela itzulpegintzaz hitz egitea, iharduera honek eskatzen dituen zerbitzuei buruz hitz egin gabe. Hona hemen zerbitzuok: (161)

- *Prestakuntza-zerbitzua*: itzulpegintzan jendea trebatzeko.

- *Hizkuntz zerbitzua*: produktuen kalitatea zaintzeko.

- *Terminologia-zerbitzua*: Terminologia-bankua.

- *Plangintza eta Gestio-zerbitzua*: administrazio-lanak burutzen direneko zerbitzua.

- Ezin zaio eskatu itzultzaile bati, itzultzeaz gain, ekonomia, arte, zerga-arazo,... eta nekazaritza arloan aditua izatea. Hutsune hau betetzeko sortu zen terminologigintza. (161)

- Terminologia-plangintza baten beharra ikusten da, orain dagoen egoera kaotikoari aurre egiteko. Plangintza hau, Administrazioetik bultzatu beharko litzateke, ene eritziz. (162)

- Zenbait lekutan terminologia-lanaren arrazoia itzulpena da, gure testuinguruan, ez da hori bakarrik. Pentsatu behar dugu terminologiarik gabe ez dagoela jatorrizko produkturik. Ezin da sortu, ezin da gai berezietei buruz hitz egin, idatzi, argitaratu, ezta irakatsi ere. (...) Terminologiaren erabiltzaileak asko dira: ikasleak, ikertzaileak, itzultzaileak, lexikografoak, argitaratzaileak, industria-gizonak, merkatariak, Herri-Administrazioa, komunika-

bideak eta Zientzia eta Teknika-arlotan interesaturik dauden guztiak. (163)

- Helburua zehatza da, beraz: terminologiaren baterakuntza ziurtatzea eta Euskal Herri mailan erakunde guztien artean terminologien batasuna suspertzea. (163)

- Honetaz, berriz diot, Administrazioaren egitekoa oso garrantzitsua da, berak sortu, bultzatu edo suspertu beharko bait luke terminologia-lana eta funtzionaltasuna lortzeko asmoz, Normalizazio-Batzorde bat osatu, erabakiak hartzeko. (163)

B) Jose Luis Lizundia (Erantzulea: Euskaltzaindikoa) (165-166 or.)

- Terminologiaren normalizazioa -dio- erakunde ofizial batek terminologi baten erabiltzea sustatzea da, edo zenbait terminoren artean, batzuk gomendatzea. Ene ustez, ongi dago eta zenbait erabilpen baztertzea ere, baina hori ez da aski, behar bada sortzea ere badagokio norbaiti edo norbaitzuei eta hau ezin da ustez egin itzultzaile bakoitzak bere gisa, erakunde bakoitzak nolana, politiko ez jakin batek ere txarrago. Forum bat ez badugu horretarako, ezin dugu arazoa ongi konpondu. (165)

- Plangintza hau (-dio-) administrazioetik bultzatu beharko litzateke, ene eritziz. Uste dut baietz, baina Administrazioek bai daude gure kasuan, horiek kidekatzeko nolabait deitzeko eta baita, Nafarroa eta Iparraldea ere kontutan izateko, beste xehetasun batzuk ere kontutan izan beharko genituzke. (166)

C) Jose Maria Berasategi eta Ibon Olaziregi. (Erantzuleak: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailekoak) (167-170 or.)

- Hasteko inportantea iruditzen zaigu terminologiaren kontua teoria eta zientzi mailan planteatzea. (167)

- Horrekin lotuta legoke Aracelik bere txostenean behin eta berriro aipatzen duen prestakuntza beharra. Erabat ados gaude premia horrekin eta erizpide baterakuntzan aurrera egiteko beharrezko ikastaro berezituak lehen bait lehen programa daitezen nahi genuke. (167)

- Gure uste apalez, terminologi lanek egiazko beharrei erantzun beharko liekete. Munduan zehar asmatzen diren hitz berri guztien ordainaren bila ibiltzea alferreko lana liteke, gero hitz horiek euskaraz erabiliko ez badira. Erabakitzeke orduan, hitzik erabilienek, agerikoenek, maizenik agertzen direnek lukete lehentasuna. (168)

- Itzulpengintzak gaur egun betetzen duen eta luzaroen bete beharko duen egitekoaz gain, euskarazko sorkuntza lanak duen garrantzia aitortu beharra dago. (169)

- Azken finean, gizartearen eguneroko premiei erantzuteko bideak behar ditugu. Eztabaidak eta erabakiak lau espezialistaren eskutan gelditzea nahi ez bada, terminologiaren zabalkunderako bide eroso eta pedagogikoak ipini behar dira, erakunde, enpresa eta herritarrei ere erraztasunak emango dizkietenak. (169)

- Orohar esan genezake ez dugula orain artekoan gaindi ezinezko terminologi arazorik topatu. Ez dugu beraz kontua horren beltz ikusten terminologiaren aldetik behintzat. (170)

D) *Andoni Sarriegi* (Erantzulea: Beasaingo Udalekoa) (171-175 or.)

Orokorrean Aracelik eginiko txosteneko Terminologi Teoriazko azalpenak onartzen baditu ere, jarraiko akatsok leporatzen dizkio:

- 1) Azken urteotan eginiko aurreraka nabaria (EUSKALTERM, Hiztegia 2000, UZEI, UBU eta Elhuyar-en argitalpenak...) kontutan ez hartzea (172).

- 2) Gaur egun daukagun teknika-literatura (15 urteotan O.H.O., L.H., B.B.B., U.B.I. eta Unibertsitate mailakoa) gogoan ez hartzea (172).

- 3) Definizioak euskaraz ematen dituzten hiztegiatan (UZEIko hiztegi batzuk eta Euskarazko Hiztegia) berri zehatzik ez izatea edo aintzakotzat ez hartzea (172).

4) Europako Erakundeen izenei baliakideak emateari buruz UZEIk aspaldi (Ekonomi Hiztegian) egindako izen-proposamenak gogoan ez izatea (172).

Jarraian zenbait gogoeta eskaintzen dizkigu Administrazioak daraman itzulpen hutsezko jokera salatuz:

•Erakundeetan zoritxarrez, ia itzuli baino ez da egiten eta askotan inork gutxik irakurtzeko. Gainera, alboan beti han dago erdal testua badaezpada ere. Beste horietan ordea (Elhuyar, UZEI, JAKIN, UEU) ez. Horietan itzultzeaz gainera edo itzuli hainbat edo gehiago, erredaktatu egiten da eta EUSKALTERM bezalako terminologi bankua eratu. (174)

Jarraian konpondierako proposamen batzu ere eskaini zituen: (175).

-Abiapuntutzat UZEI-n lana, bereziki EUSKALTERM, hartzea. (175).

-Euskal Herri osorako eta ez Gobernu batena izatea.

-Euskal Herri osoko zazpi herrialdeetarako balio lukeen Terminologi Zentrua eraikitzea proposatuko nuke UZEI oinarriztat hartuta, HAEE eta Erakunde Ofizialen ordezkariatzat, nahiz Euskaltzaindariarenak, Unibertsitatearenak, Elkargo Profesionalak, etab. barri dituela» (175).

3.- *Administrazioko euskararen terminologia bateratzeko erizpide eta bideak.* Lantzekoak eta antolakuntzakoak.

A) *Eneko Oregi:* (Txostenegilea: Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundekoa) (185-195 or.) Eneko Oregik bere txosten luzean egiten duen diagnosian, Aracelik eta beste zenbait txostengilek aipaturiko zertzelada nagusi batzu biltzen ditu, gehienok bat gatozalarik. Nik, hemen, batez ere terminologiari edo administrazioaren erabili ohi den hizketari zuzenean dagozkienak jaso nahi ditut, hainbatetan administrazioa euskalduntzearen barneko atal mugatu bat baldin bada ere. Alde batera utziko ditut, beraz, gaztelaniaren eragipenari (186-188), administrazioa euskaldun-

tzeari (188-191) zein administrazio-hizketaren erabiltzaileei (191) buruz eskaintzen dizkigun gogoetak.

Hemen, bereziki, administrazioko hizketa bideratzeko proposatzen dituen erizpide orokorrak eta lanerako antolamendua jasoko ditut:

1.- Erizpide orokorrak: (189-190)

-Administrazio-hiztegi eta hizketak eta are euskara administrazioan normaltzeak berak ere, euskal hizkuntza-komunitatearen hizkuntzazko normaltze-bidearen zerbitzura egon behar du.

-Euskara euskaldungoaren hizkuntza egoki eta erabiliagoa izateari lagunduko dion administrazio-hiztegia bultzatu behar da.

-Begibistakoa da, eta hasieran honetaz zerbait aipatu dut, lotura estua behar dutela hizkuntza orokorraren estandartze-prozesuak eta administrazio-hizketarenak.

-Honek euskararen normaltze prozesuan corpus-aren lantzea (kodifikatzea, estandartzea, e.a. eta statuz-arena elkarlotzea eskatzen du.

-Erabilgarritasun horrek (ulergarritasuna/esangarritasuna/irakurgarritasuna/idazgarritasuna, kasuan kasu) autonomia behar luke izan, eluke gaztelaniarekin derrigorrezko loturarik izan behar. Euskarazko esapideak asmatu beharra dago.

-Erizpide berak, hizkuntzaren batasuna zaintzea eta zatikatzearriskutik begiratzea eskatzen digu.

-Bai eratorbidea erabiltzean, baita maileguak hartzean eta bai euskal hitz-altxorreko hitzak berrezartzean ere, gehiegikeria franko egin da azken urteotan.

•Nere aburuz, hiztegi kontu honetan, itzulpenean bezalaxe, teknika guztietarik erabili beharra dago (mailegua, kalkoa, trasposizioa, modulazioa, egokitzea eta baliokidetzak) barne baliabideez gain (eratorbidea, hitz-elkarketa, berrezarpena) kasuan-kasu, eta lehentasuna zeharkako teknikei emanez. (191)

2.- *Antolamendua*: (192-194)

2.1. *Administrazio eta Lege arloko Terminologia-Datutegia*: HAEE-n kokatuta.

a) Lege eta administrazio-arloko hiztegi eta terminologiaren husketa eta bilketa, itzultzaileekin harremanetan.

b) Datutegia eguneratzea, fitxa-eredu finkatu bati jarraituz.

c) Eskatuko zaizkion azterketa terminologikoak egitea.

d) Aritu-batzordeak bateratzea eta koordinatzea.

e) Administrazio eta Lege-Hizkerarako Batzordeari hiztegi-proposamenak egitea.

f) Galdegune izatea, erabiltzaile guztientzat, beharrezko informatika-azpiegituraz.

g) Administrazio eta lege hiztegia zabaltzea, honetarako bide egokiak jarritz.

2.2 *Aritu-batzordeak*: alorkako terminologia eta hiztegi-lanean adigaiak landu, zehaztu eta finkatzeko. Behar adina Aritu-Batzorde osatu behar da, beti ere alor bakoitzeko gaiak ongi ezagutzen dituzten berezilariekin.

2.3. *Administrazio-hiztegirako Batzordea*: administrazio ezberdinetako erabiltzailez osotua, hots: Gipuzkoako Foru-Aldundia (1); Bizkaiko Foru-Aldundia (1); Arabako Foru-Aldundia (1); Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (1); Eusko Legebiltzarra (1) eta HAEE (4).

Honako eginkizunak lituzke: Hiztegi-beharrak finkatzea; Huztuketeta eta bilketa lana ziurtatzea; Datutegiaren proposamenak eztabaidatu eta iritzia ematea; Hiztegi-proposamenak Datutegira bideratzea.

2.4. *Lege-hiztegirako Batzordea*: lege alorreko erabiltzailez osotua, hots: Bizkaiko Abokatu-Elkartea (1); Gipuzkoako Abokatu-Elkartea (1); Arabako Abokatu-Elkartea (1); Lehendakaritza,

Zuzentza eta Autonomia-Garapenerako Saila (1); Deustuko Unibertsitatea (1); Euskal Herriko Unibertsitatea (1); Eusko Legebiltzarra (1) eta Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea (4).

Eginkizun berdinak.

2.5. *Administrazio eta Lege-Hizkerarako Batzordea.*

Euskaltzaindiko Hiztegi-gintza-Batzordeko eta HAEE-ko ordezkari osatua (3na) eta HPINren ordezkari bat buru duela. Komenigarri litzateke, Nafarroako Gobernuaren ordezkari ere izatea. Honako eginkizunok lituzke:

a) Datutegiko lantaldearen lana begiratzea, lehenatasunez, erizpidez eta lan-jardueraz bere iritzia emanez.

b) Datutegiko lantaldeak landutako hiztegi-proposamenei buruzko iritzia ematea, bi arlo-batzordeen iritzia jakin ondoren.

c) Azken proposamenak onartzea, HAEE-ri argitaratu edo zabaldu ditzan bidaliz.

d) Euskaltzaindiko Hiztegi-Batzordearekiko eta honen erizpideekiko baterakuntza ziurtatzea.

e) Neurketa edo ebaluazio-azterketak agintzea eta aztertzea.

f) Administrazio-hizkerazko gainerako materialak aztertzea eta iritzia ematea.

B) Pedro Alvarez: (Erantzulea: Bizkaiko Foru Aldundikoa) (197-198 or.)

• Enekok txostenean dionez, momentu honetan anarkia eta bitxikeria ditugu nagusi Administrazio-hizkeraren alorrean (gainerakoetan sartu gabe), gehiegikeria franko egin da azken urteotan. (197)

• Segurtasun linguistikoa dut, momentu honetan, gehien kezkatzen nauen arazoa, bestea (segurtasun juridikoa) helduko da. (198)

• Eta ez ahaztu, zoritxarrean, itzulpena dugula Administrazio hizkeraren iturburu nagusi. Beraz, batzorde horien eginkizunen artean, itzultzaileak berziklatzea, birgaitzea sartuko nuke. (198)

C) *Joseba Erkizia*: (Gipuzkoako Foru Aldundikoa) (199-202 or.)

- Duela urte batzuk (...) jasotako edozein motako testuak (hizkuntza idatziari soilik gagozkiola) euskaraz adierazteko gaitasuna erakustea zirudien garrantzitsuena. Eta bide errezenetik abiatu zen euskarazko produkzio itzulia: kanpoko ereduen hitzez-hitzezko itzulpen-segidistaren bidetik. (200)

- Positibotzat jotzen dut, beraz, orain arteko ikuspegi eta joera segidista eta enkorsatua zalantzan jartzea. Sortzen didan bildurra, ordea, moda baten ondotik beste moda bat etortzea da, eta mailegu nahiz kalkozalekeriaren kritika maileguaren eta kalkoaren tekniken ukazio bihurtzea. (200)

- Eta kontua zera dela: «nerria» hartzen saiatzea. Kalkoa behar denean kalko egokia erabiltzen, mailegua behar denean mailegu egokia hartzen, neologismoa sortu behar denean neologismo egokia eratzen, trasposizioa egin behar denean trasposizio egokia egiten ahalegindu behar dugula. Neurrian eta proportzioan. (200)

- Euskarazko lexiko administratiboak duen arazorik larriena tradizioz eza delakoan nago, eta, honekin batera, euskararen egoera soziolinguistikoa. (200)

- Honek esan nahi luke gaurregun dugun egitekorik garrantzitsuena hizkera eta hiztegi administratiboa finkatzeko lanean «tonu» edo «neurri» egoki hori hautatzen jakitea litzatekeela. Eta gainerakoa denborak eta belaunaldiek egingo dutela. (200)

- Ukaezinezkoa bait da euskaldungoa inguratzen duen eta bizi den eremua espainiarra dela batetik eta frantziarra bestetik. Honek esan nahi du duen munduaren ikuspegia eta, zehazkiago, administrazio kontzeptualizazioa eta erreferentzia mundu horienak direla neurri haundi batean. Eta hau oso gogoan hartzea dela iruditzen zait. (201)

- Autonomotasuna bai, beraz, eta ahalik eta haundiena gainera. Baina hau dogma berri bihurtu gabe. Azken batean, sortzeko dugun ereduak *funtzionaltasuna* bermatu beharko du. (201)

•Lexikogintza honek bete beharreko baldintza nagusia mezu emailearen eta hartzailearen arteko komunikazioa bermatzea da. (...) Euskal testu administratiboak (...) inguruko hizkuntzetara (gaztera, frantsesera, inglesera nahiz alemanera) normaltasunez itzultzeko modukoa izatea. Hona hemen Eneko Oregik dioenaren kontrapuntua, kontrapuntu bada. (202)

•Ez dut uste, ordea, lanerako sistema egokiena denik lantaldeak eta batzordeak osatzeko proposatzen duen ikuspegi «demokratizista» edo «organigramista». Esan nahi bait dut, Euskaltzaindiaren eta IVAP-HAEEren esanetara lan egin beharko luketen lagunek benetako espezialistak izan behar luketela. (203)

D) Xabier Olarra (Erantzulea: Nafarroako Gobernukoa) (203-205)

Irtenbiderako Enekok proposaturikoen azalpen sakonagoa itzaroten zuela esan ondoren honako hau azpimarratzen du bere erantzunean:

•Hizkuntzazko diglosi egoera ez da egun batean aldatuko, adigaiak hein handi batean gaztelaniaz sortuko (?) dira eta *itzulpengintza* izango da aurrerantzean ere arlo honetako zeregin nagusia. Gakoa beste honetan datza nere ustez:

-Danok dakigu euskararen normalizazioak ekarriko duela gaurko gure terminologi problema gehienen askabidea. Erabilerrak finkatzen baitu hizkuntza.

-Baina gure gaurko egoeran, Administrazio-hizkera finkatzeko bide hori egiteko eman behar diren pausoak itzulpenaren makuluekin egin beharko ditugu (204).

•Itzulpengintzak zeregin berezia izango duenez, antolamendu aldetik ere neurri bereziak hartu beharko dira eta bi aipatzekotan honako hauek aipatuko nituzke:

1. Itzultzaileak ongi prestatzea (Eskolak, Ikasketa Unibertsitateak, Mintegiak).

2. Itzultzaileen eskuetan lan tresneria egokia jartzea. (204)

E) *Mikel Zalvide*. (Brantzulea: Hezkuntza Sailekoa) (207-217 or.)

Orohar Enekoren txostenarekin, batez ere ikusmolde soziolinguistikoarekin bat datorrela aitortzen badu ere, ez du uste gaur egun direla urte batzu baino anarkia handiagoa denik ez eta axolagabekeria kaltegarria izan denik goitik behera Agintariak eredurik ez ezartzea. Bestalde, aparteko garrantzia ematen dio administrazioan euskara hutsez ihardungo duten guneak sortzeari, hortik sortuko baita terminologia egokia eta benetako batasuna. Akats nagusienaren iturburutzat euskara gutxiegi jakitea edo prestakuntza eza jartzen ditu. Laburbildu beharrak eraginik, honakook azpimarratu nahi nituzke:

- Gutxi lan egiten dugu Administrazioan euskaraz, eta interakzio-esparru jakin-mugatuetan jarduten dugu, gainera, nagusiki halakook. (208)

- Administrazio-esparru berrietara zabaldu behar da euskara, eta esparru horietan euskaraz halako normaltasun batez jardungo duten administraziak ugaritu. (209)

- Administrazio-alorreko terminologi kontuok astintzerakoan beronen ikusmolde soziolinguistikoa izan behar dugu denok, hitzazal ederreko mami hutsalean gelditu nahi ez badugu, abiaburu nagusi eta erizpide gidari. (209)

- Aurrerago ikusiko denez ez nago ordea ados, zeharo kontrako ez naizen arren, kaltegarritzko arrisku horietatik ihes egiteko ez Eneko Oregik eta ez beste zenbait txostengilek aurkezturiko formula «linguistiko» hutsekin. (210)

- Ez dut uste, alegia, administrazio-euskararen hobekuntza nagusia terminologia teknikoari datxezkan samantikazko, lexikologiazko eta morfosintaxizko erizpide zentzukoak aplikatuz lortzeko denik. (211)

- Terminologia erizpideei gaineratzen dizkiegun hutsegite edo gabezia asko eta asko ez dira berez terminologi arazoa: hiztunen

mintzagaitasun ahul, erasan eta kaskarra da halakoetan, neurririk handienetan, benetako arazo-iturria. (212)

Konponbideak

1) Geure praxi oparo, eredugarri-funtzional eta baterabildua:

a) Euskarazko praxi oparoa burutu beharra daukagu. (...) Administrazio-lana euskaraz produzitu edo egitea, ahalik eta ugarien egitea, da alor honetako puntu nagusia. (214)

b) Eredugarri izango den euskal produkzioa bultzatzen ahalegindu behar dugu, gainera. (...) Erabiliko dugun hizkuntza, esapide-estiloa eta abar zaindu, landu eta edertzea nahi eta nahiezko eginbeharra dugulakoan nago, urrutira begirako ezer ganorazkorik erdietsi asmoz baldin bagabiltza. (215)

Euskara eder-eredugarri eta funtzionalaren arteko dosifikazioa terminologiazko erizpide orokor eta proposamen konkretu gehienak baino askosaz garrantzitsuagoa gerta daiteke praktikan; eredu baten garapena edo porrota dosifikazio egoki horrek erabaki dezake neurri ohargarri batean. (215)

c) Baterabilduzko jarduna, azken urteotan jadanik gailentzen hasi dena, indartu eta areagotu egin beharko dugu aurrerantzean. (215)

2) Erakunde bidezko zabalkunde eta indartze-lana.

• Aginpidearen indarrez edo bestelako adostasun-bide batez, baina nolabait, beharrezkoa bihurtu beharko da euskarazko lan-jarduna administrazio-alorreko hainbat lan-eginkizunetarako. (216)

• Guztiarekin ere Agintaritzari dagokio, eskubidez eta erantzunkizunez, euskara administrazio-alor desberdinetan zabaltzea. (216)

• Guzti hori lortuaz ere, eginkizun legoke ordea zabalkunde ta indartzelan horren parte astunena: geroz eta administrazio-alorreko langile, langune eta harreman-sare gehiago euskaraz (ere) funtzionatzen jartzea. (216)

3) Terminologiazko egokitzapena: (217)

• Eneko Oregik eskaini digun antolamendu-eredua posibleetarikoa bat da, noski, eta pentsatzekoa da oraindainoko ibiliaren eskermentuaz egina izango duela. Zeinahi bide hartzen dela ere, hiru baldintza eskatuko nizkioke nik horrelako langintza bati:

a) Euskaltzaindiaren gidaritzaz jardutea: guztioi komeni zaigu, horrelakoetan, teillatu bakar baten babesean jardutea eta, elkarren arteko tirabirak bestela ezin konponduzkoak gertatuko balira, azken instantzia amankomen bat eskueran izatea. Are gehiago administrazio-euskararen terminologia Autonomi Elkartera soilik zabaltzekoa ez litzatekeenez.

b) Formula paraleloak baztertea: ahal delarik bi elkarte edo lantalde, alegia, langintza berean ez jartzea. Zirt-edo-zarteko erabakia hartu aurretik puntu hau gehixeago aztertea mereziko luke, nolana ere.

c) Administrazio alorreko terminologia egokitu eta finkatzeko bideak jartzerakoan *benetako* premia konkretuei aurrez aurre heltzea, amets txurigorizko etorkizunaren eskakizun posibleak egungo eta bihar-etziatiko behar praktikoekin errazegi nahastu gabe. Aurreko puntuetan, terminologiaren ikuspegi soziolinguistikoko hori aipatzerakoan, esandakoak erizpide gidari izan behar luke hartarako, nere ustez.

ONDORIOAK:

Aurreko orrialdeetan jasotako irakasgai mamitsuak hausnartu eta administrazioan itzulpen lanetan eginiko urteetako eskarmen-tua kontutan dudalarik jarraikootan laburbilduko nituzke nire erizpideak:

1. Euskal Herria, bizilagunen kopuruz zein ekonomiazko baliabidez herri txikia dugunez, ezin ditugu Herri aberats eta handiek dituzten ikerketa bide guztiak martxan jarri. Ondorioz irtenbide praktikoei begira eginiko organigramak behar ditugu batik bat.

2. Jadanik burutua dugu azken urteotan, hainbatetan, administrazioko hizkeraren corpus handiena. Gogoan hartzekoak dira UZEI, Elhuyar, Jakin, Hiztegia 2000, Bostak bat, UEU, Ikastolen Federakunde, Diputazio eta Eusko Jaurlaritzak eginiko lan opa-roak. Anarkia ere gutxitu egin da eta batasun osoa lortzeko azken urratsen premietan aurkitzen gara nonbait.

3. Hala ere, administrazioko hizkera egiten dihardugun guztion arteko harremanak eta koordinazio estua bideratu beharra dago, ahalik eta batasunik handienera heltzeko. HAEE-k erraztu egin beharko lituzke bideak, orain artean izan duen kontrol-jokera alde batera utziz. Enekok proposatzen dituen Batzordeak kontrol hori gordetzeko asmoz edo eginak izan direla ematen dute, ez baita bestetara ulertzen zergatik egon behar duten hainbeste HAEEko kide Batzorde guztietan!

4. Jardunaldietako txostenetan aparteko garrantzia eman zaio euskaraz eginiko produkzioari, orain arteko itzulpengintza gainditzeko bide bakartzat eta batasunerako erarik egokientzat ikusten delarik. Beraz, aparteko arretaz lagundu behar zaie euskara hutsen bizitzea erabaki duten Udalei, koordinaketa zainduz gero, udal administrazioko hizkera bideratzeko erarik zuzenena izango baita beraiek hartutako bide hori.

5. Organigrama «haundiak» sortzen aritu beharrean, noiz behin-ka, administrazioan lanean ari direnen eta halako lanak aztertzen dihardutenen artean lan-jardunaldiak eratu beharko lirateke. Igaz Diputazio ezberdinetako itzultzaileen ordezkarien artean egin zenaren antzera. Eztabaidagarri ziren testuak aurretiaz egokiro aztertuak izan zirenez bizpañu bileratan hirurehun termino inguru bateratu ziren eta hizkuntz loturei eta abarri buruzko zenbait erabaki hartu, jarraian Euskaltzaindiak osaturiko Batzordearen behin-behineko onespena jaso zuelarik.

6. HAEEk datu banku berria sortzen ahaleginak egin beharrean, lankidetzeta-hitzarmena egin beharko luke UZEIrekin, antzerakoe-tarako Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Nafarroako Gober-

nuak, Euskal Herriko Unibertsitateak, Euskaltzaindiak berak eta abarrek egin izan duten bezala, ikerketarako talde parekideak sortzen diruak eta ahaleginak alperrik galdu gabe. Erakunde ofizialek hor hemenka sortutako ekimenak kontrolatzeko lehia baztertu beharko lukete.

7. Azkenik, arazo honetan azken hitza Euskaltzaindiak bakarrik izan behar duela azpimarratu nahi nuke. Ausarkeria handiegiztat jotzen dut, arazo hau konpontzeko HAEEK Euskaltzaindiarekin batera Batzorde parekide erabagikorra sortzeko egiten den proposamena. Nor da, bestalde, HAEE, Euskaltzaindiak nola osatu beharko lukeen halako Batzordea esateko? Nik, igaz, erizpidea eskatu zidatenean, halako batzordea, Euskaltzaindian une honetan hizkuntz-alorreko ikuspuntu ezberdinak aztertzen ari diren lan-batzordeetako (Gramatika, Lexikologoa, Hiztegitza eta Legegintza Batzordeak kontutan hartzen nituela) kidez osatu behar zela proposatu nuen, alor guzti horiek elkarloturik aurkitzen baitira.

Patxi Uribarren